



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

571. zkia.
XIV. urtea
2006ko maiatzaren 12a




18/98
GEHIAGO EZ

18/98 epaiketaren kontra bat eginda

udako planak 06



abxutxiamaika
AISIALDI TALDEA



Udaleku irekiak

Noiz: ekainaren 26tik uztailaren 21era,
asteleheneretik ostiralera
Norentzat: Haur Hezkuntza 3-4-5,
Lehen Hezkuntza 1-2
Ordutegia: 09:00etatik 13:00etara
Prezioa: 60 €

Udaleku itxiak

Noiz: uztailaren 10etik 16ra
Norentzat: Lehen Hezkuntza 3-4
Non: Aubixa (Elgoibar)
Prezioa: 115 €

Udaleku itxiak

Noiz: uztailaren 11tik 20ra
Norentzat: Lehen Hezkuntza 5-6
Non: Askizu (Getaria)
Prezioa: 220 €



● IZEN-EMATEA:

-Izena emateko epea: maiatzaren 15etik 31ra.

-Plazak mugatuak dira eta matrikulazio ordena errespetatuko da.

-Matrikula 2 zatitan ordaintzeko aukera egongo da (erdia izena ematean eta beste erdia udalekua hasi aurretik)

-Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Nagore) eta nagore@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikoan.

● Antolatzaileak:



● Laguntzaileak:





IMANOL LARRAÑAGA

"Urtiak bete nahi dittut, baiña ez daukat zahartzeko gogorik". Gure amamari entzun nion 96 urte bete zituenean. Pozik zegoen urteak bete zituelako, baina triste urtebete zaharragoa delako. Izan ere, gure amamak badaki urte bat gehiago betetzen duen ba-koitzean, bat gutxiago geratzen zaiola.

Kuriosoa da edadearekin izaten dugun konponezina, Uxue. Umetan ez diogu inolako garrantzirik ematen. Hatzapartxoak dantzan jarri eta pozik esaten diegu inguru-koei zenbat urte bete ditugun, beste eskua-rekin erregalu-papera kendu ezinik gabiltzan bitartean.

Adoleszentzian, baina, gauzak konplikatzeko hasten dira. Barruan dugun umea bazterrerara bota eta *nagusiak* izateko desearatzen egoten gara, ez dakit zer egin eta lortzeko esperantzarekin (gero konturatzen gara adinak ez duela beti ezinaren atea irekitzen). Baina, uste baino lehen, urteak ezkutuan gordetzeko adinera iristen gara. Urteak gainetik kentzeko edadera.

Azkenerrako laga dut zahardadea. Denok sartu nahi baina beldurra ematen digun etxe azken gela da zahardadea. Bagoaz, baina ez dugu iritsi nahi. Ibaiko urek, itsasoa bistaratzean, beriz ere ibaian gora egin nahiko balute bezala da. Baina, noiz iristen gara, ba, zahardadera, Uxue? Nire lagun batek dioen moduan, dena eginda daukala pentsatzen duena da zaharra. Eta horrek, zorionez, ez dauka zer ikusirik edadearekin.

ZOZOAK BELEARI...



UXUE ALBERDI

«Dena eginda daukala pentsatzen duena da zaharra»

IMANOL

«Bizitza ez da laburra, ez luzea, dugun denbora dugu ez gehiago»

UXUE

Ba omen zen behin denbora paketetxoetan saltzen zuen gizon bat. Saltzen zituena bost minutuko poltsak, egun batekoak, astebeteak, urte oso bat barnean zuten paketetxoak ere bai... Denbora falta zuenak bereganatu joan besterik ez zuen.

Emakume ximurtuak, gizon okertuak... denak joaten zitzaizkion bizitzeko ordu batzuk, egun batzuk, urte batzuk gehiago erostera. Heriotza gertu sumatzen duenak pentsa baitezake: gaztea banintz egingo nuke hura, izango nintzateke pilotu, joango nintzateke Gangesen bainu bat hartzera, emango nioke muxu ezpainenetan gizon hori... Egindako bidean gora ihesi joan nahi lukeen errekaren modura, bai: hari hura ukitu izan banu, edo puntu hartan ezkerretara biratu...

Baina denbora saltzen zuen gizonak zera egiazatu zuen: pertsonok, denbora gehiago izanagatik ez dugula hobeto aprobetxatzen. Hiltzera goazenean 10 urte bizitza gehiago erosi arren, 10 urteren buruan, berriro izango ditugula mila gauza egin gabe, eta denbora gehiago nahi izango dugula.

Saltzaileak galdetzen zien: baina zertan eman dituzue, ba, azken 10 urteak? Ia beti sorbaldak igotzen zituzten denbora erosleek.

Bizitza ez da laburra, eta ez da luzea. Dugun denbora dugu eta ez gehiago. Guri ez digu inork denborarik eskainiko hiltzera goazenean. Baina, oharu: emango baligute ere alferrik litzateke.

“ AISE BARKA DAKIOKE GIZON BATI ORDUBETEZ MEMELO IZATEA, BAI BAITAUDE ERGELAK BERE BIZITZA OSOAN ORDUBETEZ MEMELO IZATEARI UZTEN EZ DIOTENAK ”

F. Quevedo

Galziarrak herri erdian, besteok zergatik ez?

Galiziar jaiak sekulako arrakasta izan dutela irakurri dut Diario Vasco egunkarian: Aita Agirre Plazan ospatu direnez, herri erdian, jende asko gerturatu dela. Orduan galdera bat etorri zait burura: alkatea eta bere gobemu batzordea ez al dira konturatzen merkadilloa ere herri erdian jarri behar dela? Ez dut ulertzen zergatik elkarte batzuei ematen zaien herri erdian jartzeko baimena eta beste batzuei ez. Denok gara herria.

Herriko jaietan ez da "tiobiborik" jartzen, autoak ezin direlako Plaza Txikitik kendu, baina orain, hiru egunez egon da aparkalekua okupatuta.

Irizpideak denontzat berdinak izan behar dira!

M.F. 15330691

Eskerrak Eguneko Zentroari

Gure aitaren bigarren etxea izan da Eguneko Zentroa bere gaixotasunean. Etxe honetan falta den gauza bakarra eguzkia eta haizea dira. Eskerrik asko egiten duzuen lanagatik, zuek gabe askoz zailagoa izango litzateke dena ondo eramatea.

ABDON BASKARANEN SENIDEAK

Galiziar jaiak?

"Semana das letras galegas". Galegas? Espainola besterik ez dut entzun, bai txiringitoetako megafonian eta baita musika taldeen jardunaldietan ere: rumba, sevillana, flamenkoa eta Hego Ameriketako musika. Tartean, Manolo Escobarrera omen den "viva la bandera española"... Lotsagarria! Ez dut muñeira bat bera ere entzun, dantza ikuskizunean izan ezik. Eta gainera, igande eguerdian, sevillanak esklusiban Plaza Txikian.

Galiziarrek euren kultura dute, ederra, aberatsa, interesgarria... Baina joan zen asteburuan ikusi genuenak "semana de las letras españolas" ematen zuen. Lehen gutxi ez, eta... lotsagarria!

I.I. 13367936A

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA


barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitate: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

KOLABORATZAILEAK: Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gurutxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makozaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urzuno, Unai Villena, Aloitx Vives. **ESPERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburitik. **IRIVATEGIA** Geru **TIRADA** 4.510 ale. **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK



• **Mendiko motorrean ibiltzen direnei polikiago ibiltzeko eskatu nahi diet.** "San Lorenzo bailarako baserri batean bizi naiz eta mendiko motorrean ibiltzen direnen abiadurak beldurtuta gauzka azkenaldian. Ez daukagu ezer mendi motorren aurka, ez diegu ezer galarazi nahi, bai, ordea, eremu pribatutan edo baserri ingurutik pasatzen direnean abiadura gutxitzeko eskatu. Ume txikiak, agureak edo traktorearekin lanean dauden baserritarrak arriskuan jartzen dituzte, eta askok ez daukate aseguruak."

• **Galiziarren jaietako kaleko kartelak galegoz eta gazteleraz bakarrik zeuden.** "Udalak diruz laguntzen dituen ekitaldietako kartelak euskaraz ere egon behar dute, eta galiziarrek ez dute hori bete. 2006. urtean ezin da honelakorik onartu". Udaletxeko Euskara eta Kultura Sailetatik esan digutenez, "Udalak baimendutako kartelak galegoz idatzita zeuden eta Udalak edozein hizkuntza minoritario darabilten kartelak baimentzen ditu, galegoa, euskara, katalana... Erdara hutsean zeuden kartelak pulperoa (enpresa pribatua) ateratakoak ziren, bere kabuz argitaratutakoak Udalaren baimenik gabe. Jende gehiago erakartzeko Udala eta Galiza Etxearen logotipoak erabili zituen, baina guk inondik inora ez genuen hori baimendu".



TXALOAK

• **Jubilatuena Egoitzatik Udalarari eskerrak eman nahi dizkiote:** "Asteazkenean Bianara egin genuen txangoa. Lehen ez ziguten lagatzen autobusak Plaza Handira sartzen, eta aurten inolako arazorik gabe utzi digute. Eskerrak eman nahi dizkiogu Udalarari, eta bide batez, horrela jarraitu dezala eskatu. King-kong-eko autobus geltokiak ez ditu beharreko baldintzak betetzen. Jende asko elkartzen gara eta ez da denontzako lekurik egoten. Gainera, euria egiten duenean, jende guztia busti egiten da. Plazako arkupeetan ez dago arazorik. Eskerrik asko".

• **Elgoibarko galiziarrei eskerrak eman nahi dizkiote,** "oso jai politak antolatu dituztelako eta herrira jaitea ideia oso ona izan delako. Asteburu polita izan dugu, ekitaldiz beterikoa, eta giro oso ona izan da herrian. Aurrerantzean ere, berdin jarraitzea espero dugu denok batera elkartzunean ondo pasatuz".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 943 74 41 12

komikia

Hil da gero...



Kokoe 058

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

Udala eta helduen euskalduntze-alfabetatzea

Lau atal bereiztuko ditugu Udalak helduen euskalduntze-alfabetatzean izan duen inplikazioa aztertzerakoan. Aste honetan lehen ikusiko dugu, eta datorren astean ikusiko ditugu gainontzeko hirurak:

- Sektoreari eskainitako laguntzak.
- Udalak prestatutako kanpainak eta ikastaroak.
- Proiektuei eskainitako babesak.
- Udal langileen euskalduntze-alfabetatzea.

1) Sektoreari eskainitako laguntzak:

Lokalak: Bai Udal Euskaltegiak eta baita AEK-k ere, beti eman dituzte eskolak Udalak lagatako lokaletan. Gainera, Udalaren kontura dira lokaleko konponketak, obrak eta garbitasuna.

Ikasleak: 80ko datua da topatu dugun lehen. Udalak matrikularen erdia ordaintzen zien gau-eskolako ikasleei, 1.500 pezeta bakoitzari. 83tik aurrera, Udalak bekak izan ditu Udal Euskaltegiako ikasleentzat, hauek baldintza batzuek betez gero. Langabetuek, ikasleek, jubilatuek eta gurasoek ere beka eta laguntza bereziak izan dituzte Udal Euskaltegian.

97-98tik aurrera, AEK-ko ikasle, jubilatuek eta langabetuei matrikularen erdia ordaintzea erabaki zuen Udalak. Eta 2000. urtetik aurrera, AEK-ko ikasleek ere beka lortzeko aukera dute. Beka honen bidez, matrikularen % 50 bueltatzen zaie ikasleei baldintza batzuk betez gero (% 80tik gorako asistentzia, ikastaroa amaitzea, eta gutxienezko aprobetxamendua izatea).

Barnetegietako ikasleak: 1998an hasi zen Udala laguntza mota honekin. Gaur egun, barnetegiko egonaldia gastu osoaren % 40 (gehenez ere 180 euro) ordaintzeko dirulaguntza ematen dio Udalak barnetegira joaten denari, gastua 600 eurotik beherakoa denean. Kostua altuagoa denean, berriz, aztertu egiten da kasu bakoitza, baina sekula ez da ematen gastuaren herena baino gehiago.



PILI VILLAR

UDAL EUSKALTEGIKO IKASLE OHIA

Pili Villar alabari laguntzeko asmoz hasi zen euskara ikasten eta Udal Euskaltegian egin zituen 3 urtetan aurrerapauso handiak egin zituela aitortu digu. 92an laga zion euskaltegira joateari, baina euskara beti izan du bide lagun.

• Noiz eta nolatan hurbildu zinen euskarara?

Nire alabak hiru urte bete zituenean, ikastolan hasi zen garaian. Alaba laguntzeko euskara pixka bat jakitea lagungarria izango zitzaidala pentsatu nuen. Batzokian hasi nintzen, Plaza Handian, eta Arrate izan zen nire lehen irakaslea. Joku bat moduan hartu nuen garai hura. Niretzat euskara ez zen ezezaguna, baina zerotik hasi nintzen. Gero Udal Euskaltegian hasi nintzen, 4. maila edo pausotik abiatuta. 3 urte egin nituen bertan eta 92an laga nuen.

• Izan al duzu laguntzarik euskaltegitik kanpo?

Bai, liburuak irakuriz eta jendearekin berba eginez ahalegindu naiz euskara hobetzen. Alabarekin ere euskaraz bakarrik egiten

dut. Garrantzitsuena lotsa baztertu eta berba egitera ausartzea da. Pribatuan egiteko alferrik da euskara ikastea. Jende asko ezagutzen dut euskaraz oso ondo jakin arren, kalean edonorekin berba egiteko lotsatan daudenak. Lehen berba euskaraz egiten dut edonorekin eta zerbait gaizki esaten badut ez naiz larrituko. Zuzentzen banaute, gainera, sekula ez zait ahaztuko gaizki esandakoa, barneratuta geratuko zait. Horrela ikasten da

• Zer izan da zailena?

Ez dut uste euskara ikastea zaila izan denik, baina erraza ere ez, eh? Kontua da nik euskara ikastea nahi nuela, alegia, gustuko lekuan aldaparik ez. Gauzak derrigorrez ikasi behar direnean beste kontu bat da.



ESKERTZA

2006ko maiatzak 3an, 76 urte zituela hil zen **Jose Etxaniz Osaræn** sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



[AKORDATZEN NAIZ]



FELISA BERGARETXE

1915ean jaioa

«Jaixak»

Neretzat San Bartolomiak lan-egunak izaten ziran. Tabernia gendukan, eta sukaldian pasatzen naban egun guztixa, jatekua preparatzen. Gero ertetzen naban pixkat, lana amaittu ostian, erromerixara edo norian ibiltzera.

Dantza egittia gustatzen jatan: mutillak ateratzen giñuzen dantzara.

Mutilzahar edo neskazahar geratzia ez zagan hain gaizki ikusitta. Bazagan neskazahar edo mutilzahar gerat-

zen zan jendia. Nik ez nakan ezkontze-ko hainbesteko biharrik.

Gaur egun ere, ezkondu eta apartau egun batetik bestera egitten dabe. Maittasuna egun batetik bestera desparezitzen da.

Hori baiño hobe da ez ezkontzia, ta tartian umiak baldin badagoz, orduan eta okerrago. Inungo kulparik barik, sekulako sufrimendua. Eurak, nahi dabena egitteko, baiña umiak, zer? Horrek gonorabekuak dira.



[GURE BERBAK]

Lau urtian / lau urtetan

Gaurtik aurrera, sintaxi-egitura batzuk ekarriko ditut hona, saillian-saillian. Gaurkuan perpaus osagarri batzuk (aditza osatzen dabena dira): aditzian -ELA eta -ENA atzizkixak daukenak, hain zuzen. Hórretako batzuek EZE bat ere edukitzen debe aditzaren ondoren, ondoren datorren esaldixaren sarrerria egiñez bezela: *esan dizut eze ... -ela*, horra egitura osua zein dan.

ENA-dun egitturia, berriz, mendebaldeko (Bizkai aldeko) hizkeren ezaugarria da, baiña gurian (eta Gipuzkoako beste hizkera batzuetan) ere gorde da. Onena horrek danok adibide batzuen bidez erakustia izango da, beti bezela:

- *Eta pentsa (eg)lik, haura hil zala ointxe datuaz hamar urte.*
- *Da gero, ba ointxe dala hamabost egun izan giñan.*
- *Nik esaten dot eze edozeiñek haura ezin zeikiela ibilli, haura katxarro zaharra.*
- *Eta esaten jardun zien eze haura presia egitteko berrogeta bi milloi arbola kendu zittuela.*
- *Eta edurra ere behiñ egin zabana gogoratzten naiz.*
- *Harekiñ, Lekeittion, ostatu billa ibilli giñana akordatzen naiz. Neuk eruan nittuan neurekin.*
- *Badakixe geurekin ezin leikena ezer egiñ.*
- *Hori dudarik ez ervango zittuena.*

Jesus Mari Makazaga

I. URTEURRENA

2005eko maiatzaren 12an, 89 urte zituela hil zen

Tomasa Altuna Arizmendiren

oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKOLAK EUSKALDUNTZEN SINADURA KANPAINA

HIZKUNTZA POLITIKA BERRIAREN BILA

Hezkuntza eta euskalgintzako hainbat eragilek sinadura bilketa erraldoia jarri dute martxan. Helburua: hizkuntza politika berria ezartzea. Kanpaina honen bultzatzaileen esanetan, gaur egungo hizkuntza politikak ez ditu ikasle guztiak euskalduntzen, euskal ikasleen eskubideak urratzen ditu eta gainera, euskarari oztopo handiak jartzen dizkio. Hauen azterketen arabera, hiru ikaslelik bi ez dira euskalduntzen. Gaurko erreportaje honetan Elgoibarko ikastetxeetako euskara arduradunekin egon gara gai honi buruz hitz egiteko. Bestalde, gai honetan aditua eta aritua den Iñaki Arruti Lasarteko Udaleko euskara teknikariak gai honi buruz daukan iritzia eman digu.

100.000 SINADURA

Helburua, Euskal Herri osoan 100.000 sinadura biltzea da; Debabarrenako eskualdean 2.650 sinadura lortu behar dira eta, Elgoibarren 500 da lortu beharreko sinadura kopurua. Kanpaina maiatzaren 27an bukatuko da. Ordura arte, herriko ikastetxeetan eta Elgoibarko Izarran izango duzue sinatzeko aukera.

Euskal ikasleriaren hizkuntza argazkia

89.666 euskal ikasleklase guztiak gaztelaraz edo frantsesez jasotzen ditu, euskarazko irakasgaiarik gabe (**ikasleriaren %20,7**)

106.269 euskal ikasleklase guztiak gaztelaraz edo frantsesez jasotzeaz gain, *Euskara* irakasgai ematen dute, lau ordu astean (**ikasleriaren %24,6**)

72.419 euskal ikasleklase hainbat klase erdaraz eta beste hainbat euskaraz jasotzen ditu, (**ikasleriaren %16,7**)

164.375 euskal ikasleklase guztiak euskaraz jasotzen ditu, eta *Gaztelera* edo *Frantsesa* irakasgai ematen du astean lau orduz (**ikasleriaren %38**)



IÑAKI ARRUTI

Euskara teknikaria

«Eskolarik gabe ezin, berarekin soilik ere ez»

Gure aitak dio euskerak asko egin duela aurrera eta gaur egun ume gehienek, euskeraz ikasten dutenez, badakite la euskeraz hitz egiten eta beste kontu batzuk zirela ikastolak eta hasi aurretik...

Arazoi zati handi bat baduela aitortu behar diot aitari. Berak aipatzen dituen garaietatik gaurkoetara egoera beltzetik txurira (edo grisera behintzat) aldatu da. Eskola euskaldunik gabe ezin da euskal hiztun osorik egin, ez behintzat modu orokortu batean eta bizitzan zehar euskaraz normal samar moldatzeko behar diren ahozko eta idatzizko gaitasunekin.

Aitak, ordea, ez ditu semeak irakurtzen dituen txostenak irakurtzen eta ez daki, adibidez, iaz Jaurilaritzak argitaratutako ikerketa batean jasota dagoela D ereduan ikasten duten gazteen bi herenek "soilik" lortzen duela oinarritzko maila (ingelesaren "first" mailaren parekoa edo), B ereduan ikasten dutenen heren batek eta A ereduan ikasten dutenen artean ez dagoela maila hori lortzen duen ikaslerik. Horregatik beltzetik grisera.

Eta zergatik lortzen du ba eskolak batzuetan euskalduntzea eta beste batzuetan ez? Galdera erantzuna baino errazagoa da. Hala ere, erantzun oso osorik ez bada ere, argibide batzuk eman daitezke. Hasteko, "euskaldundu (eta erdaldundu)" ez du soilik eskolak egiten. Alderantziz, eskolak ere euskaldundu dituen gaztetxo horietako asko etxetik etorri dira euskaldun. Eskolak osatu egin ditu. Zeinek osatu du gehiago hitzuna, eskolak edo etxeak?

Bazenekiten 8 urteko haur batek urtean esna pasatzen dituen orduen %15 direla ikasgelan pasatzen dituenak? Beste %85 horretan ere, egiten dituen gauzak egiten dituela ere (kirola, lagunak, familia, musika...), horietatik egiterakoan ere bere burua euskalduntzen edota erdalduntzen ibiliko da haur hori.

Bazenekiten Estatu Batuetan egin berri den ikerketa batek dioenez (hemen ere antzera izango da), hango haurrek urtean 900 ordu inguru egoten direla eskolan eta 1.000 pasatxo telebistaren aurrean?

1. 3 ikaslelik 2 ez dira euskalduntzen... • 2. Zein da zuen ikastetxearen egoera?
3. Hizkuntza politika barri baten beharra al dago? • 4. Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?



**ANE ZUBIZARRETA eta
MIREN ODRIOZOLA**

Herri Eskolako euskara arduradunak

1. Azterketa horrek esaten badu sinetsi beharko dugu. Dena dela, ez dugu uste egoera bera denik Iparraldean, Nafarroan eta EAEn. Ezta Araba eta Gipuzkoan ere. Guk hobekien ezagutzen dugun egoera Gipuzkoakoa eta Elgoibarkoa da eta hemen euskalduntze maila ona dela pentsatzen dugu; hala ere beti hobe daiteke.

2. Aipatu bezala, probintzia eta erkideen artean alde ederra dago. Baita publiko eta pribatuaren artean ere. Publiko ez da A eredu mantentzen, Pribatua berriz, bai. Gure eskolari dagokionez, esan behar da, D eredu erabat sendotu dela eta dauzkagun emaitzekin pozik gaudela.

3. Beno, hizkuntza politikak esango genuke, Euskal Herrian Hizkuntza Politika ezberdinak daudelako. Nafarroan, Iparraldean eta EAE barruan ere. Horrez gain, herri bakoitzean gauzatzen da politika hori eta guk ezagutzen duguna bertokoa da eta hobe daitekeen arren ez genuke gaizki dagoenik esango.

4. Gu nahiko baikorrak gara. Gaur egungo erabilera eta ezagutza, 60 eta 70. hamarkadekin konparatzen badugu, herri euskaldunetan agian pixka bat jeitsi da, baina herri industrialetan handitu egin da erabat. Gure herrian nahiz eta erabilera ez izan guk nahi bestekoa, ume eta gazteen artean euskararen ezagutza nahiko berrak da. Bestalde, egoera berriak sortu dira: etorkinak, globalizazioa... eta honi ere aurre egin beharko diogu. Orain arte lan handia egin arren, bide luzea dugu aurretik eta horretan jarraitu beharko dugu lanean.

IÑAKI ASTIAZARAN eta XABI LASA

Ikastolako Euskara Mintegikoak

1. Egungo eskolak ez du euskalduntzen, euskararen ezagutza ematen badu ere, "euskalduntzea" euskararen ezagutza soiletatik harantzago doalako. Euskalduntzearen ispilua edo adierazlea, norberaren egoera komunikatiboetan euskara erabiltzeko hautua egitea litzateke, askatasun osoz eta eremu desberdinetan. Euskalduntzea euskara kalitatez erabiltzea litzateke, egoera komunikatibo bakoitzari dagokion erregistroa eta taiuera emanda. Hori ez da eskolaren egin beharra soilik, gizarte guztiarena, eragile desberdinena. Hori denen artean bideratzen ez den bitartean eskolak soilik ez du lortuko.

2. Elgoibar Ikastolak, sortu zenetik, ahalegin horretan dihardu. Egun programa eta proiektu desberdinetan partaide da euskara bizitzeko eta euskaraz bizitzen eragiteko (betiere, D ereduan). Eskolako esparrutik kanpoko jardunetan ere bere ahalegintxo egiten dihardu Elgoibarko Izzarak bultzatutako "Kuadrilategi" eta euskalduntzeko indartze neurrien saioetan. Euskaraz Bizi programan partaide eta Ulibarri programarekin ere ari da. Eskola Kiroleko entrenamenduak euskaraz izan daitezten teknikari euskaldun bat jarrita dago aspaldidanik; baita eskaintzen dituen beste zerbitzuetan ere, esate baterako,



rako, jangelan, politika berdina darama.

3. Bai, Hezkuntza ereduak berrikusi, beharrak sortu, hizkuntza eskakizunak aplikatu eta horien arabera plangintzak eratu.

4. Etorkizunari begira, erronka da gaur egungo etxeko eta eskolako erabilera hirtunen hurbileko esparruetara, batez ere lagunartera, zabal dezagula. Adibidez, Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien artean gaur egun gehien-gehienek 16 urtetik beherako seme-alabak dauzkate, baina antzematen da seme-alabekin gutxiago hitz egiten dutela horiek zahar-tuz doazen neurrian. 6 urtetik beherako haurrak dauzkaten ia guztiek (%98) euskaraz jarduten dute gaztelaniaz baino gehiago, baina 10 urtetik gorako seme-alabak dauzkatenen portzentajea txikiagoa da (%82). Gotzon Garate elgoibartarrak dioen bezala, beharrezko ez diren hizkuntzak galdu egiten dira. Gure esku dago beharrezko hizkuntza den eta izango den erabakitzea.

JESUS MARI AGIRRETXE

Pilar Ikastetxeko euskara arduraduna

1. Ikasleek euskara ezagutzen dute, baina orokorrean ez dute erabiltzen. Hor dago benetako arazoa.

2. Gure ikasleen etxetan, orokorrean ez da euskaraz hitz egiten gurasoek ez dakitelako. Ikasle hauek gune euskaldun batean hezi daitezten saiatzen gara.

3. Bai, bide berberetik jarraituz, emaitza berdinak lortuko ditugu.



4. Betiko arazoez aparte, euskarak hainbat erronkari egin behar die aurre: globalizazioa, internet (ia dena ingelesez dago), etorkinak... izugarizko lana dago egiteko.

[PROTAGONISTA]



Agustina **Iriondo**

101 urte bete zituen joan zen apirilaren 27an Agustina Iriondok. Zorionak! Mendaroko Mantarre baserrian jaio zen Agustina 1905. urtean. Bertan pasatu zuen bere haurtzaroa, eta 20 urte zituela Elgoibarrera etorri zen bizitzera. Bere senarra ere mendararra zen, Jose Arriola Itsasueta baserrikoa. Hiru alaba izan zituen Agustinak, eta ilobak eta birbilobak ere mordoak. Duela gutxi hiru alabetako bat hil egin da, eta Agustina oso goibel dagoela esan digute senideek. 101 urte eta makina bat istorio bizi izan ditu emakume honek. Zein ote da sekretua?

[NOTIZIA]

Santa Ana kaleko obrak berehala jarriko dira berriz martxan

Duela hilabete pasatxo hasi ziren Santa Ana kaleko errotonda gaineko obrak. Aparkalekua hustu eta babes Ofizialeko 99 etxebizitza eraikitze-ko obrak hasi zituen Eusko Jaurlaritzarentzat lanean ari den Visesa enpresak. Lehendik ere lanak atzerapena zeramaten trenbide azpiko zuloa egiterakoan izan zizuten arazoak zirela-eta. Azken egunotan lanak berriz geldirik daudela ikusirik, zurrumuru bat baino gehiago zabaldu da herrian geldiune honen arazoak direla-eta. Visesako prentsa arduradunarekin harremanetan jarri gara eta hona jaso dugun erantzuna: "Eusko Trenekin Babes Ofizialeko 99 etxeak eta trenbidearen artean gorde behar den gutxieneko distantzia zehazterako orduan izan ditugu arazoak,



eta deskontaminazio arazoak ere konponduta daude. Hortaz, berehala hasiko gara lanean, ez dago obrak geldirik egoteko arazoirik". Babes Ofizialeko etxeak egiteko 24 hilabete beharko dituztela azaldu digute, "2008ko udaberriko bukatuta egongo dira".

[ZENBAKIA]

119

Biztanleko 119 euroko zorrarekin itxi zuen Elgoibarko Udalak 2005. urtea. Guztira, 1.250.530 eurokoa da Udalak entitate finantziarioei zor dien diru kopurua. Gipuzkoan %4,5ean egin du gora biztanle bakoitzeko zorrak, baina Elgoibarko kasuan, gutxitu egin da: 2004an 1.641.439ko zorra zeukan.

[ARGAZKIA]



18/98 epaiketaren kontrako herritarrek argazkia atera zuten zapa-tuan. Bakoitza era pertsonalean eta nahi zuelako agertu zen zita honetara. Batetik, euskal herritarren aurka burutzen ari den epaiketarekiko gaitzespena erakustea eta epaiketaren artxibatze eskatzea zen helburua. Bestalde, epaituei elkartasuna adieraztea nahi dute, batez ere, Juan Mari Mendizabal elgoibartarrari. Azkenik, epaiketa honen inguruan gure herrian izango diren ekitaldietan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diete herritarrei, "guztion laguntza ezinbestekoa baita".

Sigmako aparkalekua eta Kultur Etxe atzeko parkea inauguratu dituzte



Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkateak eta Migel Anjel Mujika Hirigintza Saileko arduradunak inauguratu zituzten joan zen barixakuan Sigmako aparkalekua eta Kultur Etxe atzeko parkea.

93 autorentzako aparkalekua

2.513m²ko aparkaleku honetan 686.920 euro inbertitu ditu Udalak. Aste Santu ostean lehenengo solairua ireki zuten, eta dagoeneko, goiko aldea ere prest dago. Bi solairutan banatuta, beraz, 93 kotxe aparkatzeko lekua dago bertan. Os-

tegun goizetan, beheko pisua merkadilloa jartzeko erabiliko da, interesa duten saltzaileek euren eskariak egin eta partzelen banaketa egiten denean.

Parke berria

Parke berriko obrak Bikani enpresak burutu ditu. Berritze lanak aprobetxatuz, Merkatu Plazara joateko zeuden eskailek kendu eta aldapa jarri dute, ezinduentzako bidea errazteko asmoz. Jarleku iturri eta zuhaitzez apaindutako parke berria daukagu beraz, Kultur Etxea eta Errosario kalearen artean.

[MOTZ-MOTZIAN]

“Euskara eskura” katalogoa

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eta Udalak gestionatzen duten Gurean Bai-Merkataritza proiektutik, “Euskara eskura” zerbitzu katalogoa eskaintzen hasi dira dendetan. Bertan, eskaintzen dituen zerbitzu eta laguntzak biltzen dira. Informazio gehiago 943 74 16 26 (Amaia Lasagabaster) telefonoan.

Autobus istripua

Igande goizean autobus bat iraulizzen Melitongo rotondan. Zorionez, ez zeraman bidaiaririk eta ez zen zauritu larririk egon.



Begoña Errasti Elgoibarren

Eusko Alkartasunako presidentek, Begoña Errastik, EAk Jausoro Plazan duen alkartetxean hitzaldia eskaini zuten joan zen zapatuan. Alkartetxea jendez gainezka zegoen.



1956an jaiotakoen bazkaria

1956an jaiotakoak eta aurtengo 50 urte bete dituztenen ospakizuna ekainaren 3an izango da. Interesatuak 943 74 45 29 (Antonio) telefonora deitu dezakete.

Oskorriren “The pub ibiltaria” TVEn ikusgai



Kontzertu arrakastasua eskaini zuen Oskorrik joan zen ostiralean Herriko Antzokian. Aurtengoan 10 urte bete ditu “The pub ibiltariak” eta hori ospatzeko, Elgoibarko kontzertua grabatu egin zuten telebistaz emateko. Aste honetan hasi da TVE kontzertua emititzen, eta egunero abesti bat emango dute. CD berriko 17 abestiak emitituko dituzte, beraz, 17 egunetan. Telenorte saioan emango dute, eguerdiko 14:55ean eta iluntzeko 20:25ean. Azkenengo saioa maiatzaren 30ean izango da.

Inkesta

Espainiako biztanleen batez besteko bizi itzaropena 79,7 urtekoa da.

Zuri zenbat urtera arte bizitzea gustatuko litzaizuke?

NESTOR FUENTE
Biltegiko langilea
31 urte



“Bizi kalitate ona daukadan bitartean, eutsi arte. Bizitza aprobetxatzea da kontua, bizi garen bitartean ondo bizitzea. Ez naiz zenbaki bat esatera ausartzen.”

M^a ASUN IRIONDO
Etxekoandrea
46 urte



“Burua ondo daukadan bitartean, ahal dudan guztia bizitzea gustatuko litzaizuke. Kantitatea baino, kalitatea da garrantzitsuagoa, urte kopurua berdin da.”

KARMEN LARRAÑAGA
Administrataria
51 urte



“Urte asko baina bizi kalitate onarekin. Orain bizitza asko luzatzen dute erresidentzia eta medikamentuekin, baina hori ez da bizimodua. Horrela egoterik ez nuke nahi.”

OLAIA QUINTAS
Ikaslea
10 urte



“Asko, 90 urtera arte bizitzea gustatuko litzaizuke. Oraindik asko falta zait eta ez dakit iritsiko naizen. Nire amamak 60 urte inguru ditu eta oraindik oso ondo dago.”

[BAI ala EZ?]

Ondo ikusten al duzu oinezkoei ere multak jartzea?

BAI %69

“Bai, oso ondo iruditzen jata. Errepideetako erabiltzaile guztiei arau berdinak jarri behar zaizkie: oinezkoei, txirindulariei... Batzuei jartzen bazaie, besteei ere bai.”

EZ %31

“Ez, gehiegizkoa dela iruditzen zait. Gainera, isunak jartzea ez da metodo egokia. Jendeak seinaleak errespetatzeko beste bide batzuk aurkitu behar dira.”


Datorren asterako.... **Pentaplegiko batek bere buruaz beste egin du norbaiten laguntzarekin. Zure ustez, eutanasia legeztatu egin beharko litzateke?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 personentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala** hotelean. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

JAIOTAKOAK



Leire Eguren Arregi
[Apirilak 1]
Jose Alberto eta Montse



Maialen Labrador Griñon
[Apirilak 13]
Andoni eta Susana



Lorena Garcia Barros
[Apirilak 13]
Jose Antonio eta Maria Luisa



Unai Arambarri Garcia
[Apirilak 18]
Eduardo eta Maria Teresa



Iker Calvo Villalobos
[Apirilak 19]
Alvaro eta Cristina



Galder Galindo Ramon
[Apirilak 22]
Felix eta Nora

Idoia Aristorena Iglesias
[Apirilak 9]
Juan Ignacio eta Lurdes

Maialen Aliste Rodriguez
[Apirilak 12]
Miguel Angel eta Nerea

Erik-Aitor Rodriguez Gomez
[Apirilak 20]
Ramiro eta Esperanza

HILDAKOAK

Nicolas Garcia • [85 urte] • Apirilak 1
Felisa Goikoetxea • [87 urte] • Apirilak 1
Maria Mendikute • [79 urte] • Apirilak 5
Pakita Arriola • [76 urte] • Apirilak 9
Jose Alonso • [85 urte] • Apirilak 10
Oliva Garcia • [79 urte] • Apirilak 16
Julio Arriaga • [92 urte] • Apirilak 16
Gregoria Irasuegi • [85 urte] • Apirilak 17
Manuel Kapanaga • [73 urte] • Apirilak 21
Manuel Del Pino • [65 urte] • Apirilak 25
Esterban Gonzalez • [71 urte] • Apirilak 27

EZKONTZAK

* Hilabete honetan ez da ezkontzarik egon Elgoibarren.

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizara.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

Haur Hezkuntzako irakaslea

ALAZNE ZENDOIA



- 1 Zerk animatu zintuen Haur Hezkuntzako irakasle izatera?
Haur txikiak asko gustatzen zaizkit eta maneiatzeko errazagoak dira.
- 2 Dituzuen opor luzeek ez al zuten zerikusirik izan?
Ez, nahiz eta abantaila bat den. Erizaintza ikasteko nota iristen ez zitzaidalako hasi nintzen Haur Hezkuntzan, baina betidanik gogoko izan dut.
- 3 Lanbiderik estresanteenetarikoa ei daukazue. Zerk estresatzen zaitu?
Daramatzadan 3 urtetan ez dut estresatzeko astirik izan. Halere, sarrera eta irteerako orduak dira estresanteenak, alde egiteko irrikaz baitaude.
- 4 Zein da atentzioa zureganatzeko darabilzun taktika?
Lasai daitezen gustuko gauzak egiten jartzen ditut: jolasak, plastilina... , baina batzutan ez dago oihu bat edo beste botatzea beste erremediorik.
- 5 Zer nota jarriko zenioke zure buruari ikasle gisa?
6 edo 7 bat; zientzietako irakasgaiekin ez nintzen oso ondo moldatzen.
- 6 Zein zen azterketak gainditzeko zure taktika?
Ikasten nuen arren, behin edo behin erabili nuen txuletarik (barrez).
- 7 Ikasle ala langile bizitza da hobea?
Ikasle bizitza ona da, baina dirurik gabe independentzia gutxi dago.
- 8 Ematen ez den zer beste irakasgai emango zenuke?
Musikari garrantzi handiagoa emango nioke Haur Hezkuntzatik hasita.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



MARI CARMEN ROLO ama



TAMARA MOLINA alaba

GALDERAK

- | | | |
|--|---|---|
| 1. Gustuko jantzi edo arropa bat? | 1. Gona luzeak. | 1. Prakar; bakeroak edo txandala. |
| 2. Zenbateko paga ematen dizute/zizuten? | 2. 300 pta. domeketan, 16 urte nituenean. | 2. Ez daukat pagarik. |
| 3. Irla desertu batera emango zenukeena? | 3. Musika; uneoro entzuten dut. | 3. Ura, musika eta lagunak, ez aspertzeko. |
| 4. Zure ama/alabaren lagunik onena? | 4. Amaia, Veronica, Maialen... | 4. Mari Mar. |
| 5. Animalia bat? | 5. Ez ditut animaliak gogoko | 5. Txakurra, baina ez arriskutsu horietakoa. |
| 6. Indioak ala bakeroak? | 6. Berdin zait. | 6. Indioak, baina onak izan daitezela. |
| 7. Goizean umore onez jaikitzen al zara? | 7. Esmatzen naizen aldarrearen arabera. | 7. Astebarruan asko kostatzen zait jaikitzea. |
| 8. Denbora pasa bat? | 8. Lagunekin kafea hartzea | 8. Dantzan egitea |

TXIKI inkesta

Zein da erregearen lana?

Jon Urruzula
8 urte

Erregearen lana, agintzea, dirua irabaztea eta eserita egotea da.



Iñigo Armendia
8 urte

Aberatsak dira eta gehienetan ezkontzetan daude. Etxean agindutakoa bete behar du bere morriak, famili errealekoak dira...



Irati Gurrutzaga
8 urte

Zaldunei, zerbitzariari eta gazteluaren zaintzaileari aginduak ematea eta euren herria antolatzea da erregearen lana.




Egoitz Maiora
8 urte

Lurraldeari buruz idatzi eta aginduak eman. Lehendakariak aukeratu, gerra montatu eta bidaia garrantzitsuak egin.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

'GIPUZKOA ZURE ESKU'

mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Ekaitz Atxa**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARRENera ekari edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com

GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

NAPOKA

NAPOKA IRIA IZEN ARROTZ ETA SUGERENTEAREN ATZEAN ANDER MUJIK A ELGOIBARTARRA ETA MIREN NARBAIZA EIBARTARRA AURKITU DITUGU. IZENAREN JATORRIA EZ ARGITZEA NAHIAGO IZAN DUTE, MISTERIOA MANTENTZEKO EDO, BAINA BESTE HAINBAT GAUZETAZ ARGI ETA GARBI BERBA EGIN DIGUTE. MIRENEN AHOTS GOXO ETA PERTSONALA ETA ANDERREN GITARRAREN AKORDEEK SORTZEN DITUZTEN ABESTIEZ JARDUN DUGU, BESTEAK BESTE. HARTU KONTUAN IZEN HAU, ZERESANIK EMANGO DUTE-ETA. KULTUR ETXEKO SOTOAN ESKAINI ZUTEN KONTZERTURA HURBILDU ZIRENEK ULERTUKO DUTE ZERGATIA.

Bi lagunek osatzen duzue Napoka Iria. Gutxitxo ez musika talde baterako?

Hasieratik halaxe izan da eta gu biokin, gitarra eta ahotsarekin, nahikoa genuela konturatu ginen. Beti uste izan dugu baliabide minimoekin posible dela musika sortzea. Horrek bere xarma ere badauka.

Nolakoa izan zen sorrera prosezua, zein da Napoka Iriaren istorioa?

Orain dela pare bat urte, kasualidadez, ezagutu genuen elkar. Musika afinidadearen ondorioz laukote bat sortu genuen; "loess". Napoka Iria horrekin batera etorri zen. Ez zen aurrez planeatutako proiektua izan, berez atera zitzaigun, eta gustura gaudenez, aurrera jo dugu.

Zer papel dauka bakoitzak taldean?

Mirenek ahotsa eta Anderrek gitarria jartzen ditu. Dena dela, Mirenek kantu batzutan gitarra ere jotzen du. Konposatzerakoa bakoitzak bere ideak eraman eta bion artean lantzen ditugu. Askotan, edozein lekutan gaudela, inprobisatzen hasi eta bertatik irtetzen dira ideak.

Zenbat abesti dituzue zuenak? Zein dira interesatzen zaizkizuen gaiak?

Hamabost edo hoge inguru gureak dira,

baina hauetako batzuk bidean geratu dira. Kontzertu bakoitzerako errepertorio desberdina egiten saiatzen gara. Letretan islatzen ditugun gaiak ere ezberdinak dira, denetarik baitago. Normalean ez dira oso esplizituak, gisa honetara entzule bakoitzak bere interpretazio propioa eman ahal dio entzuten duenari.

Musikariok etiketak gustatzen ez zaizkizuela jakin arren, zer musika mota egiten duzue?

Ez, guri ez zaigu gustatzen, eta beti galdetzen diguten arren, zaila egiten zaigu erantzutea. Beti formatu akustikoari buruz berba egiten du, eta jendeak oso lasaia izan behar duenaren ideia bereganatzen du; kantu batzuk bai, beste batzuk, ordea, rockaren itxura eta indarra daukate. Daukagunari probetxua ataritzen saiatzen gara, ez dauka zertan musika mota bakar bat izan behar.

Zein dira zuen erreferentziazko taldeak, influentziak?

Gehienbat 90. hamarkadako taldeen influentzia daukagu. Adibidez jotzen ditugun bertsioren artean Radiohead, Alice in Chains, Pearl Jam edo Mr. Bungle daude.

Zein talderen kontzertua ikustearren ordainduko zenukete edozer?

Asko eta asko daude gustura ikusiko genituzkeenak. Talde hauetako kide asko, tamalez, hilda daude. Oraindik ikusteko aukerak ditugun artean, Pearl Jam edo Alice in Chains daude. Kasualitatea izango da, baina urte askoren ostean, biak ala biak datoz aurrean Euskal Herrira, Eddy Vedder eta konpainia Gasteizko Azkena Rock jaialdira eta Alice In Chains Bilbaora.

Gaztetxe Martxaren barruan Kultur Etxeko sotoan eskaini zenuen kontzertura jende asko hurbildu zen.

Oso gustura egon ginen, bai Gazte Asanblada eta bai jendea oso ondo portatu ziren, espeziala izan zen, aspaldian gustoren egon garen kontzertua. Gainera, lagun bat eduki genuen gurekin, Eibarko Maite Aroitajaregi, txeloa. Oso musikari ona da eta pozik gaude berarekin batera jo ahal izanagatik. Kultur Etxeko Sotoa leku aproposa da kontzertuak egiteko. Erabilpen gehiago eman beharko litzaioke.

Zaila al da kontzertuen zirkuitoan edo musika munduan lekua topatzea?

Azken urte honetan dexente gustura gabilt-



“Letrak ez dira esplizituak interpretazioa bideratzeko”

ANDER



BARREN

IRIA

za. Zorionez, Euskal Herrian aukera dextente daude kontzertuak emateko, baina musika munduan leku bat topatzea beste kontu bat da, eta hortik bizitzea ia ezinezkoa.

Gaztetxeek lan handia egin al dute talde hasiberriak ezagutarazten?

Gaztetxeek ematen duten laguntza pasada bat da. Talde hasiberriek jotzeko sekula ez da pegarik egoten, eta aukera oso ona da jende aurrean jotzeko. Gainera, orokorrean, oso harrera ona egoten da. Pena bat da Gazteteetan egiten diren ekintzek daukatena baino oihartzun gehiago ez izatea.

Nola moldatzen zarete entsaiatzeko?

Gitarra batekin nahikoa daukagu biok elkartu eta edozein lekutan entsaiatzeko. Biko taldea izateak bere alde onak ere baditu. Paradisu bat ez den arren, Eibarren behintzat entsaiatzeko lokalak badaude. Elgoibarren ez gara asko baina lokal faltaren arazoa konponduko balitz, behar bada, jende gehiago animatuko litzateke musika talde bat ateratzera.

Internet, pirateoa, diskete batzuk atek ixten... musikaren industria ez dago unerik gozoenean. Nola ikusten du egoera talde hasiberri batek? Zaila al da aukera bat edukitzea?

Bai disketeek eta bai SGAE bezelako elkarteek askotan onura baino gaizkia egiten diote musikari eta entzuleeri. Gaur egun teknologia be-

rieri esker, edozein da kapaza etxetik atera gabe disko bat grabatzeko, eta hau oso positiboa da, abantaila bat. Guk, adibidez, maketa Eibarko musika lokaletan grabatu dugu. Horrelako leku txikiak aurrera egiteko aukera ematen digu talde txikioi. Badago alde txarrik ere, ordea, produktua kaleratzeko orduan ailegatzen direnak, hain zuzen ere. Gure

kabuz eginez gero, lan askotxo da, askotan gehiegi. Diskete batek laguntza k

ematen dizkizun arren, oztopoak ere mordoa dira. Argi dago euren helbura zein den. Eta irabazten ateratzeko salmentak ziurtatuta eduki behar dituzte. Horregatik da pena bat dagoen eskaintza horren uniformia izatea. Entzule euskalduna, egia esan, ez da dagoen irekiena orohar, eta pena bat da.



“90.
hamarkadako
taldeen
eragina
daukagu”

MIREN



maiatzaren

11tik aurrera

berria berria = berria²

KAZETA eredu Berria

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

GUREAN ULERTUKO DUZU

AUKERA ezazu, BIZI euskaraz **berria**

“SEMANA DAS LETRAS GALEGAS”

Euriak ez zituen jaiak zapuztu

Galiziaarren jaiak euriarekin bat egin da etortzen dira sarri, eta aurten ere halaxe izan da. Eguraldiak ez du gehiegi lagundu, baina hala ere, arrakasta handia izan dute. Urasanditik kalera jaitsi dira aurtengoan, eta emaitza ezin hobea izan dela aitortu digu Gumersindo Vila, Galiza Etxeko presidentek: “Jaiak Urasanditik herrira jaistearekin asmatu egin dugu, sekula Urasandira igo gabeko jendeak lehenengo aldiz galiziarren jaiak jarraitzeko aukera izan dutela aipatu digu. Jende asko ibili da eta oso gustura, gainera. Elgoibarko herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu berriro ere”. Ekintzaz beteriko asteburua izan zen. Gure kamara bertan egon zen eta hemen bildu ditugu jaietako hainbat momentu.



LOJANTZI IGOERA FASEAN

Igoera lortzeko atarian geratu da Lojantzi eskubaloi taldea

Ezin izan da. Lojantzi eskubaloi taldeak mailaz igotzeko zuen ametsak bere horretan jarraitu beharko du, amets izaten. Gutxiatik izan bada ere, bigarren postuan geratu ziren Iruñan jokaturako Igoera Fasean, eta ez dute Nazional kategoriako lehen mailara igotzerik lortu. Zapatuan Aragoiko La Jota taldea 22 eta 19 mendean hartu zuten arren, domekan txanponaren beste aldean ezagutu zuten, Itxako talde Nafarra homa gaindiezina izan baitzen elgoibartarrentzat, eta azken hauek lortu zuten mailaz igotzea elgoibartarrei 33 eta 29 irabazi ostean. Jokalari atzeritarrik izateaz gain, Ohorezko Mailan ari den taldeko jokalaririk batzuk jokatu zuten Itxakoren filialarekin. Hala eta guztiz, Lojantzik ez zuen larrua merke saldu, eta minutu gutxiaren faltan 27na berdintzea lortu zuten. Ez zen emoziorik falta izan. Iruñeara hurbildu ziren 100 zaletu inguruk ere giro aparta jarri zutela harmailetan adierazi digute.



Gehenez 200 lagunek eman ahal izango dute izena Elgoibarko Mendi Itzulian



Maiatzaren 21ean, domekan, izango da aurten Elgoibarko Mendi Itzulia. Urtero legez, egun-sentiarekin batera, goizaldeko 6:00etan, aterako dira parte hartzaileak Plaza Handitik. Azken edizioetako partaidetza arrakasta ikusirik, parte hartzaileen kopurua mugatzea erabaki du Morkaiko Mendizale Elkarteak. 200 lagunentzako lekua egongo da aurten. Hor-taz, aurrez izena ematea komeni

da (Morkaikoren egoitzan: astelehen eta eguenetan (19:00-20:30)).

Finalista Eguna

Finalista Eguna ekainaren 4an ospatuko da. Egindako mendien zerrendak maiatzaren 15a baino lehen eraman behar dira Morkaikora. Finalista Egunean San Pedron egingo den bazkarirako, berriaz, ekainaren 1a baino lehen eman behar da izena.

Wingsun ikastaro irekia

Elgoibarko Wingsun Eskolak, Pello Plaza maisuaren eskutik, esgrima ikastaroa eskainiko du gaur, hilak 12, arratsaldeko 18:30etik aurrera, Olai-zaga kiroldegian. Arte Martzialetan eta defentsa pertsonalean interesatutako guztiak daude sifu Javier Gutierrezek, esgrima eta defentsa pertsonalean munduko maisurik onenetarikoak, emango duen saioa zuzenean jarraituzera gonbitatuak. Besteak beste, labana eta tresna puntazorrotzez egindako erasoen aurrean nola defendatu erakutsiko du.

Lazkao kanporatu ostean Arrasate izango da pilotari elgoibartarren hurrengo erronka Herriarteko Txapelketan



Elgoibarren lortutako hiru garaipen argien ostean, bazirudien pilotari elgoibartarrek aise lortuko zutela kanporaketa gainditzea, baina Herriarteko Txapelketan ezin da inorekin fidatu. Lazkaotarrek zeukaten dena eman eta kadete eta nagusien mailako partidak irabazi zituzten. Horrela bada, jubentzen puntuari esker (nahiz eta tanteoa ere alde izan) egin du aurrera Elgoibarrek Herriarteko Txapelketan. Jokaturako 6 partidetatik 4 irabazi dituzte. Hurrengo arerioa Arrasateko taldea izango da. Gaur, hilak 12, jokaturako dituzte joaneko partidak Ikastolako frontoian (21:30).

SAN MIGELGO RALLYSPRINTA

Josetxo Zapirainek irabazi zuen San Migelgo rallysprinta



Josetxo Zapirainek irabazi zuen San Migelgo IV. Rallysprinta. Bera izan zen bizkorrena Etxebarri eta Elgoibar arteko errepidean jokatu zen lasterketan. Renault Megane Kit Car bat gidatuz lortu zuen garaipena. Bernardo Zozaya (BMW M3) sailkatu zen bigarren postuan, irabazlearengandik 12 segundora eta Arkaitz Lotinak eskuratu zuen hirugarren postua. Hamaita eskuderiako antolatzaileek eta errepide bazterretan bildutako ikusleek Santi Artetxeren falta somatu zuten. Euskadiko Rallysprint Txapelketako liderrak ezin izan zuen parte hartu lan kontuak direla-eta. Gisa honetara ezin izan zion duela astebeite Azkarateko errepidean lortutako garaipenari jarraipenik eman.

Nafar basoek udaberrian duten xama mirestu zuten 30 heritarrek

Ipar ekialdeko Nafarroan horren ugariak diren harizti eta pagadietan barrera egin zuen azken iteera Morkaiko Mendizale taldeak. Joan ziren 30 lagunek Uitziko portuan hasi, Ireberreko tontorrera (1.205 m.) igo eta Otsoloako belardietan bazkaldu ostean Eratsunen amaitu zuten txangoa. Azaldu digutenez, behelainoak ez ziren eragotzi udaberrian bakarrik aurki daitezkeen berde kolore eta tonuak miresten. Gainera, autobusean sartu orduko, etxera bidean zirela, hasi omen zen ekaitza oraingoan.



Futbol 7 Tomeoa ekainaren 3an hasiko da

IX. Futbol 7 Tomeoan parte hartzeko izena ematea zabalik dago. Elgoibar eta Eibarko Kirol Patronatuek elkarlanean antolatzen duten tomeoa ekainaren 3an hasi eta uztailaren 15ean amaituko da. Talde bakoitzak 53,70 euro ordaindu beharko ditu eta izena ematen duten lehen 20 taldeentzat lekua egongo da. Partidak zapatu goizetan eta batzuetan asteazken arratsaldeetan jokatu dira Mintxetan eta Unben. Informazio gehiago Kiroldagian.

Xabier Loiola nagusi Eibarko Bolo Txapelketan

Xabier Loiola sanmigeldarrak irabazi zuen Asola Berriko (Eibar) bolatokia jokatu zen bolo jaurtialdia. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketari dagokion 5. jaurtialdia izan zen Eibarko eta sanmigeldarrak urteko bigarren garaipena eskuratu zuen. Hurrengo jaurtialdia, gainera, San Migelgo bolatokia izango da zapatu honetan, maiatzaren 13an (17:00).

[EMAITZAK]

ESKUBALOIA

Tecnifuelle **23** - Arrate **23** (Senior mut)
Cometel **16** - Zarautz Aiala **18** (Jub. nesk.)
Askartza **26** - Umobitza **30** (Kad. mut.)
Askartza **27** - Pneumax **22** (Kad. mut.)
Aterpe **7** - Olasa **8** (Inf. nesk.)
Donibane **23** - ANTT Softlan **26** (Sen. mut.)
Tecnomeca **26** - Groseko **26** (Inf. nesk.)
Leizaran **19** - Pagoaga **13** (Kad. nesk.)
Lojantzi **22** - La Jota **19** (Senior nesk.)
Lojantzi **29** - Loiola Itxako **33** (Senior nesk.)

ESKU PILOTA

Herriarte Txapelketa

Lazkao **22** - Elgoibar (Arri./Liz.) **18** (Kad.)
Lazkao **11** - Elgoibar (Arriz./Txu.) **9** (Jub.)
Lazkao **22** - Elgoibar (Iri./Loiola) **10** (Nag.)

Debarroko Txapelketa

Eibar **18** - Lagunak (Atxotegi/Portu) **22** (Jub.)
Arrasate **22** - Lagunak **9** (Kad.)

[AGENDA]

ESKU PILOTA Ikastolan

Baixakua, **12**

Herriarte Txapelketa

21:30 Elgoibar - Arrasate (Kad.)
22:15 Elgoibar - Arrasate (Jub.)
23:00 Elgoibar - Arrasate (Nag.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, **13**

16:30 ANTT Softlan - Tolosa (Senior. mut.)

Domekia, **14**

11:00 Lojantzi - Ehariadea (Senior nesk.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFEAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregularrena **05/06**

Jokalaria	Puntuak
1. David Morais	70
2. Navarrete	58
3. Iribar	52
4. Guinea	36
5. Aruti	32
6. Loren	24
7. Orue	23
8. Etxabe	23
9. Alex del Rio	22
10. Iker Martinez	22
11. Igartua	18
12. Kerman	17
13. Duñabeitia	9
14. Torre	8
15. Agiretxea	5
16. Jon Ruiz	5
17. Arrillaga	5
18. Tarragual	4

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Pisia salgai Bernardo Ezenarro kalean. Bi logela, garajea eta trasteroa. Berria. Prezio interesgarria.

606 71 56 77

▶ Pisia salgai Erosario kalean. 2 logela, egongela, sukaldea, komun eta trasteroa. **943 740265**

(gavez deitu)

▶ Etxea salgai Erosario kalean. Guztiz berriua. 168.200 euro (28 milioi pezeta). **943 74 84 48/636 57 11 11**

▶ Etxea salgai Urasandin. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Guztiz berriua.

630 28 63 63

▶ Etxea salgai Sigman. 2 logela, sukalde-jangela, barra amerikarra, sala, komun. Berriua, berogailua eta altzariekin.

676 94 57 82

▶ Atikoa salgai Deban. Logela bat, sukaldea jantzita, su baja, igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

670 251 263

▶ Pisia salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. 3 logela, sukalde-jangela, 2 komun, egongela, garajea eta ganbara.

659 80 10 32

▶ Pisia salgai Erosario kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komun. 135.230 euro. Adosteko.

646 75 80 91

▶ Pisia salgai Mendaron. 3 logela, egongela handia, sotoa, atikoa, bi komun. 217m². Guztiz berriua.

609 888 653

ALOKAIRUA

▶ Elgoibarren pisua osatzeko jendea behar da. **610 45 85 52**

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan. **943 53 17 54**

▶ Pisu berria alokatzen da Santa Klaran, "Residencial Mirador". Sukaldea, egongela, bi komun, 3 logela, 40m²ko terraza.

655 723 678

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan. **638 716 987**

▶ Logela bat hartuko nuke alokairuan. **697 78 52 78**

▶ Pisia alokatzen da Pedro Muguruzan. **650 80 91 90**

▶ Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua. 2 logela. **943 20 30 83**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Lokal bat alokatzen da erdialdean. 80m². Hutsik.

646 161581

▶ Garaje marraduna alokatzen da Aterpe behean. **695753699**

[AUTOAK]

▶ Ford Focus autoa salgai. TDCI, 115 zaldi, 2003koa. Xenon, TCS, Bristein suspentsioa, 76.000km.

630 946 241

[BESTELAKOAK]

▶ Kotzeko llantak saltzen ditut. 17 pulgadatak. Egoera onean.

665 72 62 71

▶ Hozkailua eta berogailua salgai. Egoera onean. **695 711 836**

▶ Martxan dagoen janari denda saltzen da San Bartolome kalean.

943 74 12 26

▶ Erabilitako furgoneta erosiko nuke. **676 929 453**

▶ Gurpil-aulki elektrikoa salgai. Garant 40. 2002. Erabilterrazza. 10km/orduko. Gurpil sendoak. Iraulgaitza. Prezioa adosteko.

635 73 58 15

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **699 609 190**

• Bi neska lanerako prest: umeak zaindu, garbiketa lanak... **609 965 932/943 53 18 35**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **639 020 180**

• Neska umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. **626 57 17 07**

• Emakumea orduka erropak plantatzatzen lan egiteko prest. **943 03 36 05**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. **943 03 36 05**

• Bi mutil lanerako prest: igeltsero, nagusiak zainduz, kamarero moduan, bserriko lanak... **615 00 83 46**

• Neska lanerako prest. **666 814 916**

• Neska nagusiak zaindu, garbiketa edo kamarero lanak egiteko prest. **667 709 439**

ESKAINITZA

• Kamareroa behar da. **699 005 135**

• Umea zaintzeko emakumea behar da. Kotxea beharrezkoa. **652 71 65 64**

• Mutil gaztea behar da. Igeltseroa edo 1. edo 2. mailako ofiziala. **605 70 52 04**

• Esperientziadun sukaldaria behar da asteburuetarako. **615 72 34 80**

• Esperientziadun kamareroa behar da. **615 72 34 80**

• Kamareroa eta sukaldariko laguntzailea behar da. Asteburuetarako. **943 12 12 62**

• Egun erdiz lan egiteko kamareroa behar da. Utzi mezua ondorengo zenbakian: **695736799**



• Arrasateko enpresak **igeltseroak** behar ditu. **Erref. 162006003439**

• Debako enpresak **fresadorea** behar du. **Erref. 162006004381**

• Arrasateko enpresak **sukaldari laguntzailea** behar du. **Erref. 162006005685**

• Azkoitikin **tomurako langilea** behar da. **Erref. 162006005374**

• Zarauzko enpresak **sukaldaria** behar du. **162006005019**

• Errezilgo enpresak **administratia** behar du. **Erref. 162006005757**

• Arrasateko enpresak **ingeniari informatikoa** behar du. **Erref. 162006005722**

• Arrasateko enpresak **kamioidaria** behar du. **Erref. 162006005716**

• Eibarko enpresak **soldadorea** behar du. **Erref. 162006005155**

• Arrasateko enpresak **diseinatzaile grafikoa** behar du. **Erref. 162006005711**

• Arrasateko enpresak **laneko segurtasun eta osasun teknikaria** behar du.

Erref. 162006005715

• Zarauzko enpresak **kamareroa** behar du.

Erref. 162006005678

• Eibarko enpresak **propaganda banatzailea** behar du. **Erref. 162006005572**

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

• Klarinetea galdu dut. Maleta eta guzti. Plaza inguruan.

943 74 10 77 -

943 74 17 43

• Urrezko pulitsera galdu nuen apirilaren 20an. Kolore desberdinek dituzte: berdea, marroia...

943 74 38 99

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Miren**, etxeko pintzesari, igandean 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



▶ Zorionak **Julen** maiatzaren 16an 2 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Inigoren partez.



▶ Zorionak **Iraitz** maiatzaren 10ean 2 urte egin zenuelako. Etxekoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Unci** zure 2. urtebetetzean. Etxekoan partez, bereziki, Oihana eta Janirenen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Izaro** maiatzaren 9an 2 urte egin zenuelako. Gurasoen eta senideen partez.



▶ Zorionak **Yanel** maiatzaren 9an 2 urte egin zenuelako. Etxekoan partez.



▶ Zorionak **June** bihar, 3 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Iker** zure 10. urtebetetzean. Ondo pasal! Muxu bat Oier eta Ikerren partez.



▶ Kilo bat zorion gure etxeko mutil handiari. Ondo pasa eta 5 kandelak ondo itzali. Muxu bat etxekoan partez.



▶ Zorionak **Intza** hilaren 15ean bi urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Mikel** maiatzaren 5ean 14 urte egin zenuelako. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Egoitz** maiatzaren 15ean 8 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta batez ere, Arkaitz eta Iratiren partez.



▶ Zorionak **Yuri** Andrea, Maria, lagunak eta familiakoan partez.



▶ Zorionak **Malen** gaur urte bat egin duzulako. Familiakoan, eta bereziki, Maddi eta amamaren partez.



▶ Zorionak **potxolo** zure urtebetetze egunean ondo pasatuko zenuelakoan, milaka muxu Ikastolako laguntxoaren partez.



▶ Zorionak prexioxa! **Nora**, egun ona opa dizugu zure urtebetetzean. Muxu potolo bat Ikastolako laguntxo guztien partez.



▶ Zorionak **Miriam eta Javier** hilaren 13an eta 30ean zuen urtebetetzea delako. Nerea eta Elenaren partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **bikote!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean. lagunien partez.



▶ **Laida, Txus** maiatzaren 15ean 3 eta X urte beteko dituzue. Zorionak muxu handi banarekin. Gu ospatze-ko prest gaudel! Aitxita, amama eta Andoni.



▶ Zorionak elgoibartar eta ondarrutar txintxo hauei, hilaren 10ean, 10 eta 4 urte egin zenuelako. Etxeko guztien partez.



[OKINDEGIA]



14 igandea FOTERO



[FARMAZIAK]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 12 Etxeberria (Santa Ana)
 - 13 Ibañez (* Goizez Yudego)
 - 14 Ibañez
 - 15 Bidasolo
 - 16 Etxeberria (Santa Ana)
 - 17 Fernandez
 - 18 Yudego
 - 19 Zabaleta

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa 943 03 26 10
 Larrialdiak 943 46 11 11
 Planning-a 943 74 29 50
 Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85
 D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
 Gurutze Gorria 943 74 38 64
 Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
 Odol Emaileak 943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
 Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
 Hirigintza 943 74 43 84
 Epaitegia 943 74 16 30
 Haziena 943 74 44 14
 Mendaroko Udala 943 03 32 82
 Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
 Udaletxea 943 74 10 50
 Udaltzaingoa 943 74 13 94
 Debemeng 943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 74 04 42
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 74 08 98
 Bizkaibus 902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria 943 74 41 12
 Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
 Kirolegia 943 74 44 15
 Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
 Liburutegia 943 74 35 25
 Musika Eskola 943 74 21 45
 Mintxeta 943 74 43 15
 Parrokia 943 74 08 42
 Postetxea 943 74 15 47
 Gazte Informazioa 943 74 14 61
 KZ gunea 943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
 Zaharren Biltokia 943 74 05 26
 Egunekeo Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola 943 74 21 41
 HII (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua • Arreiture 943 74 80 19
 •Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31



ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40,
 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00,
 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak:
 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00,
 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:
 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00,
 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30,
 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30,
 19:30, 20:45.
Larunbatak:
 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak:
 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45..
 ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
 6:55ean hasita, ordi erdirio. Azkena
 21:55.
Asteburua eta jaiegunak:
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[12 BARIKAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urtetik 6 urte bitarteko
 haurrentzat (euria bada, hurrengo
 barixakura atzeratuko litzateke)

18:30 WINGTSUN IKASTARO IREKIA

Esgrima eta defentsa personala
 Irakaslea: Sifu Javier Gutierrez
 Olaizaga kirolegian
 Antolatzailea: Elgoibarko Wingtsun
 Eskola

21:00 PILOTA JAIALDIA MENDARON

Goñati pilotalekuan
 Kadete mailako jaialdia
 Partidak:
 Plazaola-Lazkano
 Quina-Gamendia
 Bian-Pagola

21:30 HERRIARTEKO PILOTA TXAPELKETAREN KANPORAKETA


Elgoibar-Arrasate
 Ikastolako frontoian

22:15 "OTEHITZARI BIRAKA" DANTZA IKUSKIZUNA

Taldeak: Tanttaka Teatroa eta Kukai
 Dantza Taldea
 Herriko Antzokian

SINOPSISIAK

«Syriana»



[13 ZAPATUA]

9:30 MINBIZIAREN AURKAKO KANPAINA

Sinadura bilketa
King-kong-en eta plaza Handian egongo dira informazio mahaiak
Goiz guztian zehar
Antolatzailea: aecc

11:30 ATXUTXIAN TXINTXIKETAN

Haur Hezkuntzako haurrentzat
Irteera: Plaza handitik
Antolatzailea: Atxutxiamaika
Aisialdi Taldea

11:30 IMH INGENIARITZA ESKOLAKO ATE IREKIAK

IMHko Karakate Gelan

17:00 BOLO JAURTIALDIA SAN MIGELEN

Gipuakoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren 6. jardunaldia
San Migelgo bolatokian

[15 ASTELEHENA]

17:00 ERIZ MAGOAREN IKUSKIZUNA

4-11 urte bitarteko haurrentzako euskarazko ikuskizuna
Udal Liburutegian
Antolatzailea: Kutxa

[19 BARIXAKUA]

18:30 IKASTOLAKO JAIALDIA

Ikastolako frontoian

22:00 BIDEO FORUM-A

Hizlaria: Eskame larrinaga
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Haizea Elgoibarko
Emakume Taldea

22:15 "HALA ERE..." DANTZA IKUSKIZUNA

Taldea: Ballet Contemporaneo de Eibar
Herriko Antzokian
Sarrera: 5 euro

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Syriana»

13, zapatua: 19:30-22:15

14, domekia: 19:30-22:15

15, astelehena: 21:30

«Los 3 entierros de Melquiades Estrada» (Z.K.)

18, eguena: 21:30

«Firewall»

20, zapatua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Crash»

12, barixakua: 19:30-22:15

13, zapatua: 17:00-19:30-22:15

14, domekia: 17:00-19:30-22:15

15, astelehena: 19:30-22:15

16, martitena: 19:30-22:15

17, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Mission Imposible 3»

12, barixakua: 19:30-22:15

13, zapatua: 17:00-19:30-22:15

14, domekia: 17:00-19:30-22:15

15, astelehena: 19:30-22:15

16, martitena: 19:30-22:15


17, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENez ez du gerta litekeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Los 3 entierros de Melquiades Estrada» (Zine Kluba)

Zuzendaria: Stephen Gaghan.
Antzezleak: George Clooney, Matt Damon.

Estreinaldiaren industriaren atzean dagoen korrupzioa azaltzen du filma honek, hasi Washingtoneko gizona boteretsuetatik eta Golko Pertsiako petrolio ustiatzetan lan egiten duten behargin xumeetaraino. Antzezleak, nazioarteko espioiak, gobernu inspektoreak... Antzezleak bere papera antzeztan du industria erraldi honetan, baina inor ez da jakitun beren bizitzak ondutako beste muturrean izan dezakeen eraginaz. Antzeztorea eta aberastasunaren bilaketan gizakiak egin dezakeen ankerkeriak agerian geratuko dira.



Zuzendaria: Tommy Lee Jones.
Antzezleak: Tommy Lee Jones, Barry Pepper.

Melquiades Estradaren gorpua desertuan azaldu da. Lur azalez oso gertu, presaka ehortzi zuten aserri ostean. Bertako agintariek, hilketa arrazoiak zein izan diren ikertzen indar handirik xahutu gabe herriko hilerrian ehortziko dute Melquiadesen gorpua, bigarrenengo. Pete Perkinsek, Melquiadesen ugazaba eta bere lagunak onenak, bere kasa ikertzea erabakiko du. Gainera, bere lagunaren jaioterria, El Doradora, gorpua eraman eta hirugarrenengo ehortzi artean ez du bakerik izango.

Atzera hegira



1951 urteko erretratu zahar hau **Juan Mari Mugerzak** laga digu. San Bartolome jaietako Txiki Egunean aterata dago argazkia, gaur egun Gabi taberna dagoen lekuan. Orduan ere, bazegoen lagunarteko bazkaria egiteko ohitura, eta koadrila honek urtero egiten zuen. "Gazte alaiak" izenez ezagutzen zen koadrila hau herrian. Dirudienez, argazkia goizean goiz aterata dago, oraindik mahaia hutsik ageri da-eta! Egunean zehar majo jan eta edan zutela kontatu digute. Gogora ditzagun zein diren mutil gazte hauek. Ezkerretik eskumara: **Vicente Zubiaurre "Valle"**, **Felix Aiesta**, **Ignacio Mugerza "Ruso"** (), **Migel Arieta "Lerun Txiki"**, **Juan Migel Esnaola "Musillo"** (), **Sabin Muguruza "Agarre Txiki"** (), **Juan Mari Mugerza**, **Antonio Unzueta "Moskote"** (), **Itzaki Gabilondo**, **Eduardo Irusta** (), **Xabier Argarate "Naparra"** () eta **Jose Iriondo "Mutriku"**.



*Malkoan eta irrian
izan zara gure laguna
Batek utzi duen hutsuna
ziur denon artean beteko duguna
Urrutian entzuten dugunean
pandero soinu kuttuna*

ABDON BASKARAN BALENCIAGA-ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu bi egun garrantzitsu hauetan beraien ondoan izan diren guztiak.



Olaso Poligono Industriala
Olasope Kalea, 3
Tel./Faxa: 943 74 00 12
943 74 31 04
Mugikorra: 660 47 97 34
20870 ELGOIBAR

E-posta: barola.autoak@telefonica.net

ETOR ZAITEZ GURE LOKAL BERRIRA!!

Zure ibilgailuarentzat
zerbitzu osoa eskaintzen dizugu!!

- Instalazio modernu eta berriak.
- Automobilen karrozeria: txapa eta pintura.
- Zerbitzu berriak
 1. Mekanika-konponketak
 2. Ibilgailuaren azterketa
 3. Olio aldaketa
 4. Pneumatikoak
 5. Eskapeak
 6. Autoko bateriak
 7. Freno-sistema



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezue!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Blena
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcla
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso
Lelhoak
Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze
Lelhoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga
Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Elbar)
☎ 943 200 698



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi
Olaso Poligonoa,
15-68 pabilloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga
San Antolln, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrot
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

Tellabide
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldua
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta Instalazioak
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Elektrizitatea

Aramar
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Isolamenduak

Glas Control S.L.
Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak
Indusketa eta Indusketa txiklak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com